

Ura da dena

Joxe Angel Exposito

Eguzkia lagun zuen lehen. Arerio, orain. Zail zaio azaleko orbainetan dauden sekretuak gordetzea, batez ere bere mezuaren irudi direnean. Aspalditik.

Hondartzan dago. Haizeak eztiki xurxurlatzen du bere izena belarri ondoan. Hala ere, ezin du, oraindik, istripuko garrasi metaliko hura ahaztu. Bikotekidearen garrasiarekin nahasi eta hortz zorrotz maltzurrek titi ondoan sartu ziren. Erruaren hitz, herioaren hotz. Orbaina, titi ondoan, bihotzeraino. Pentsamenduaraino. Nortasunaraino. Baita ezker besoan. Eta sabelean. Eta eskuin izterrean. Bakardadearen labanak amodioa erdibitu zuen, atzoa eta geroa betiko aldenduz. Patua idatzita, gorputzean. Itsusia eta biluztuezina, erruaren poderioz. Poza eta plazerra, memoriaren goizetako eta gauetako hotzek ukatuak. Leihorik gabeko gorputz lodian, itsusian abandonaturik. Memoriaren haritik tiratuz gero, nor etorriko? Zertarako?

Lagunari kasu egin. Edo ez. Ez. Laguna erdi zoratuta dago. Zentzurik gabeko ideiak dituen horietakoa da. Noizbehinka, aldiz, bete-betean ematen du. Orain, apika. “Zoaz hondartzara eta biluztu. Zoaz uretara, inor begira duzun lekura. Eta ukitu gorputza. Astiro, oso astiro. Gozoki. Beldurrik gabe. Zure gorputzaz jabetu. Ezagutu eta onartu. Ostera. Zure duintasuna sentitu, berriro. Zure burua biluzik maitatu. Betiko. Berreskuratu zure ametsak eta lilurak. Giza izaera izatearen edertasuna. Zu maitatu, betiko”.

Itsaso ertzean eseri da. Liburua eskuetan du. Hondartzeko harrien alboko bazterretik denak ikusten ditu. Denek ikusten dute, azkenengo harrien ondoan, liburua eskuan, bainujantzi urdina soinean. Inork ez dio begiratzen, baina denek ikusten dituzte bere

begi zintzoak. Marra goibelez zeharkatuak. Desagerrarazi arte tximurtu nahi dituzten marra ilun banaz zeharkaturik bere begi ederrak.

Hurbil, jendea biluzik, eguzkitan, jolasean, solasean, atsedena hartzen, sudokuak egiten, hizketan, irakurtzen, itxaroten, amesten. Nor bere eginkizunetan, albokoa bakean uzten. Nabarmentzen duen errespetua ez luke espero. Zein oker egon da, jada gehiegi ziren urte horietan. Tristuran alaitasun pittina. Hodei zuri polita zeru urdinean. Bazterretik bazterrera, gorputz biluztuak, ederrak denak. Berea, lotsatua eta lotsatia, salbuespen. Lagunari kasu egin. Edo ez. Ederrak denak, giza gorputz izateagarik. Berea ere, lotsatua eta lotsatia izan arren. Edo bai. Bere begiez beste aldean, aldiz, dena ikusgai. Lotsa horretaz beste aldean, mutil eta neska, gazte eta helduak, oro ikusgai. Oro, berdina, ezberdintasunean. Oro, ezberdina, berdintasunean. Nola ez ezagutu ezberdina, berdina denean.

Lagunari kasurik ez egin. Edo bai. Uretan. Uretara heltzeko pausuak inork ez dituela zeharkatuko zihurtatu. Liburua utzi. Eskuak aske. Begiak zarratu. Urak bere atarian duen atea zabaltzen dela entzuten du.

Oinak bustita ditu jadanik. Aurrera jarraitzen du. Hegaztiak hego haizea dakar, iraganean etendako musuak bezala. Eta musu horiek bere gorputz osoari buelta ematen diote. Gelditu barik, bainujantzia astinduz, tiratuz. Apurtu nahian. Bere mokoarekin ametsak txertatzeko. Aurrera jarraitzen du. Bat-batean, badu ura belaunetan. Zipristinak sabel inguruan, alu inguruko ileak blai, ertzak bustiz. Zarata arrosa entzuten da, ahula bezain ekidiezina, sexuak bere amets gozoak gordetzen duen paradisu ezkutuan.

Bainujantziaz beste aldean, ate joka bezala. Aurrera jarraitzen du. Lehen “gu” ahozkatzen zuen g punto horrek orain “gabe” ahozkatzen du. Aitzitik, “goazen” aipatu nahi luke, nahiz eta horretarako indarge sentitu. Egiazkoa sentitzea eta benetan izatearen arteko lehiak ez du joan-etorriko olaturik, harrien aurka jotzen duen uraren tematasuna baizik.

Ipurdi inguruan bildutako ur tantak aurreneko olatua dira orain, milioika tanta zurietan apurtuta. Horietako batzuk bular Erdiko pasadizoan jausten dira. Ez dute bueltatzerik nahi. Ez dute bueltatzerik. Hotzak baina askeak. Desioak bezala labangarriak. Titiburuen bila doaz, korrika, istripuak baztertutako mihi txikiak lez. Ahaztezina den mihia lez. Aurrera jarraitzen du. Zorabiotzeko arriskuan, dago. Tinko ere. Burugogor, behingoz, aspalditik. Maite zituen eta maite zuten eskuak lez. Nahi dituen eskuak lez. Bereak dira urak nahi dituen eskuak. Bera da titi horiek nahi dutena. Ausarta ez da igerian egiteari beldur ez diona, horren beldur izan arren bere burua uretara botatzen duena, baizik. Ausarta ez da bere gorputza aldatu nahi eta aldaketa burutzen duena, bere gorputzaganako nahia aldatzen ikasten duena, baizik.

Urak samatik hartzen dio baina, estutu beharrean, airea bultzatzen dio aurpegira, izerdi zuloetatik barru-barrura. Zeozer mugitzen zaion lekura heldu arte. Zorabiatzen da, baina ez da uretara zerraldo amiltzen. Ez. Tente dago. Tente darrai, denboraz ahaztuta. Denborak alde egiten dio burutik. Berea ez den eskua somatzen du berea den eskuaren gainean, bultzatzen, bainujantzia kentzen. Bereak diren azkazalak ezagutzen ditu berehala. Inguruan entzuten dituen ahotsen artetik desio bakarra heltzen zaio. Bereak

baino ez diren hatzamarrak ikusten ditu bere gorputza biluzten. Zarata arrosa bera dela ohartu baita. Beldurra bezala. Biak adiskide minak. Biak adiskide. Biak min. Biak bat.

Bainujantziak bere azaletik behera laban egiten ari da. Hainbat dira bainujantziarekin batera bere azaletik jauzi egiten duten gauzak. Azal zurian itsatsita zeuden. Ez, jadanik. Betiko egiak ziruditen, baina egia ez da arazoa, bere ezagutza eta ulermena baino. Bere sinesgarritasuna eta esperientzia baino. Horregatik agian, mingarritzat du askatasuna: arropa galtzean babes hura galtzen duelako. Estalita egotearena, besteengandik alboan baina urrun eta lasai. Bainujantziak bere azaletik behera laban egiteari jarraitzen dio. Horregatik agian, sentitzen duen beldurra eta lotsa, bere buruaren neurriak antzematen dituelako, babes hori galtzearekin batera.

Eta neurri horien esparruan, askozaz ere estaliago dauden nahiak agertzen dira bere begi zarratuen aurrean. Baita ura gogorki eusten duten eskuetan ere. Nahi horiek bere gorputzaz jabetzea nahi dute, bere gorputza ostera maitatzeko gai izan daitezen. Bere nortasunak urte hauetan galdutako espazioa berreskura dezan. Lotsa galtzeko nahia. Sexuari aurrez aurre begiratzeko nahia. Bere gorputzak zarata arrosa izateko nahia, osorik. Musika bihurtzeko nahia. Orbainek bizi izandakoaren aztarnak baitira, eta ez, ordea, bizitzeke dagoenaren iturri. Bainujantziak bere azaletik behera laban egiteari jarraitzen dio. Hainbat baitira eman eta jaso behar dituen musuak eta laztanak, baita sufrituko dituen oztopoak ere. Barruan eraman izan duen orbain armiarmari buelta eman nahi dio beldurrak lagun izan daitezen.

Kanpai hotsa. Gorputzen arteko talkaren hotsa. Ura soilik, erdian. Edo ez.

Biluzik dago, ur barruan. Burua du kanpoan, arnasten, eguzkiaren beroa jasotzen. Jendea, urrun, ez da ezertaz ohartzen eta nolabaiteko erosotasuna sentitzen du. Arnasten duen airea birikiak zeharkatu eta barrurago sartzen da, isiltasun baten bila, bularra gora eta behera bultzatuz. Bihotza korrika du burutik oinetara. Gorputza bere kabuz utzi eta urak bere lepo zabalera igo du. Titiburuak airean daude, irrika trakets baten seinale. Eta azal zati bat. Azalera bat. Azal ero bat. Alu hileak ere. Zangoak mugitzen ditu eta urak zurrunbiloak sortzen ditu han eta hemen, itsaso erraldoiak ere ongietorri berezi bat eskeini nahi balio bezala. Edo bere beldurrak zurrupatu. Edo mihia baginan sartu eta “biluzik zaude eta ederra zara” murmurikatu. Edo orbainek diruditen erloju geratua geroratu, gaurkoratu, orainaren ordua erakus dezaten. Zarata arraroz, arrosaz, hitz egiten du. “Biluzik zaude eta ederra zara”. Entzuten dio bere buruari esaten. “Eta uretan duzun gorputza begibistan”.

Arnasa sakonki hartu eta urpeko lurrean eseri da. Ipurdian eta zangoetan areazko izara sentitzen du eta eroso dago, urez inguratua, amaren sabelera bueltatzen, ostera seguru, lasai behinik-behin. Ama joan da eta bera han geratu da. Zenbatzen. Bati, bi, hiru, lau... arnasik hartu gabeko denbora neurtzen. Eskuak burutik behera mugituz, astiro-astiro, begietatik oinetara. Ilea, begiak, sudurra, ezpainak. Orbaina. Eta memoria. Hamazazpi, hemezortzi, hemeretzi... bikotekidea ezagutu zuen adina. Astiro, hatsa, pentsamenduan. Hitza ahoan, maitasunean. Fereka labangarrian. Orbaina eta fereka. Hogeita hiru. Sorbalda zuriak. Haragia ferekatuaren sekretuak. Taupada bizian titiak. Erne titiburuak, irrikitan. Orbaina eta maitemina. Hogeita bederatzi. Lasai, erabat. Irrikitan, gorputz osoa. Aurrera jarraitzen du. Hogeita hamazazpi.

Plastada batez lagunduta salto egin eta burua uretatik atera du. Arnasa berreskuratzen du baina eskuetatik ihes egiten dio, hauek libre jarrai dezaten. Uretatik irtetzen da. Arropa dagoen lekura heldu, sakelekoa hartu, eskuekin kendu hilea aurpegitik eta bere lagun zoratuari mezua bidaltzen dio. “Biluzik nago eta ikusezina naiz”. Sakelekoa arropa artean utzi eta uretara bueltatzean, mezuaren zarata entzuten du. “Ikusezina? Bai zera... Horrela balitz, ez zenidake inolako mezurik bidaliko”.

Uretan dago ostera eta, bertan igeri saiakerak egiten ari dela, arropen artetik uretara joateko tartean jasotakoaz ohartzen da: oinetan jo dion pelota umeari itzuli dio, unibertsidadeko klaseko kide ohiaren antza izugarria zuen mutila ikusi du, neskalgunarekin paseatzen, bizikleta baten erruberen markak zirudiena zeharkatu du eta arean zegoen zigarro erdi errea saihestu. Normaltasuna.

Uraren babesa ere berreskuratu du orain. Eta honek ez du ihes egiten. Ur korronte batek zango artean pasatzen da, urruneko naturaren indar ezezagun batek bidalita legez. Jakintsua eta zehatza. Korronte elektriko batek zeharkatzen du bere alutik bihotzera hazten diren nerbioak, ur horrek urteetan pilatu izandako geruza berarekin eramaten duenean. Urak urteak eramaten bere baitan, bere “blai”tan.

Elektrizidatez blai, ur azpian, urteek laban egiten dute. Eta eskuak. Eta ezpainak. Eta mihirik gabeko ahoa. Eskuarekin aho bat zabaldu du eta esandako hitzek bizitza eransten diote. Aluarekin hizketan hasiz. Hamaika aldiz errepika beharreko hitzak, hamaika aldiz hertsitutako leiho izan ondoren. Erabaki dira, orain. Erabateko bake izateko. Elkarrizketa manifestaldi bilakatzen da eta gorputzeko atal guztiek ematen dute

izena, beste eskuak gonbidatuak. Borroka arimatua barneko arerioaren aurka. Arima, borroka bizian, barneko aurkakoaren arerio. Ura inguruan. Begiak zarraturik. Eskuak biraka, gora eta behera, norberegandiko askatasunaren ibilbidea, azala, zeharkatuz, zurrupatuz, hurbilduz, mihinduz, minaren aurka joz, orbainak aztertuz, musukatuz, zanpatuz, txikituz.

Ezin du orgasmoaz gozatu. Ez da beharrezkoa. Burua astindu egiten du eskuinera eta ezkerrera. Negarrez. Edo ez. Tristura eta alaitasuna bat eginez. Hatzamarrek hitzak ateratzen dituzte lotsa eta minaren kobazulotik. Bihotza eta maiteminaren kobazulotik. Erruaren hormak erre egiten dira eguzki izpi azpian, ur bihurtuz. Malko beroak ur beroarekin nahasten dira. Ur berbera bailiran. Ura berea bailitza. Bera ur bailitza. Eta ura da dena. Alutik burura. Eskuetatik birikietara. Odoletik poztasunera. Ura da bera. Erabat. Ura, gogoia eta zangoa. Ura, errua eta harroa. Ura, orbainen armiarma. Ura, bakardadea eta duintasuna. Ura, ukazina eta ukazintasuna.

Gozatzen du bigarren batean, ariketa errepikatzen duen egunean, aurrekoan lotsa eta erruaren itzalak gauarekin bat egin ondoren. Bai, gozatzen du, eguraldia lagun duela.

Eta baita hirugarrenean ere, eguraldia lagun ez duenean. Duintasuna eta edertasuna lagun direnean. Berarekin hasiz, berriro, bere aldamenean paseatzen, ttipi-ttapa, ondartzetik zehar paseatzen ari denean, pauso bakoitzeko arrastoan jantzi bat uzten duenean.

Bere alboan urez bustitzen ari den itzala duenean.